

ERAGIN AKUSTIKO HANDIKO PIROTEKNIA ARAUTZEKO MOZIOA

Alberto Bezunartea Fernándezek, Legazpiko Berdeak + INDEPENDIENTES Udal Taldeko zinegotzi eta bozeramaile gisa, honako MOZIO hau aurkezten du, Legazpiko Udalaren hurrengo osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

AURREKARIAK

Legazpiko Berdeak taldean denbora daramagu Legazpiko bizilagunen keak eta eskaerak jasotzen, eragin akustiko handiko piroteknia (petardoak, suziriak eta su artifizialak) ospakizun herrikoietan kontrolik gabe erabiltzeagatik. Kexa horiek gora egin dute azken hilabeteetan, eta bereziki handiak izan dira Gabonetako azken jaien ondoren.

Eragin akustiko handiko piroteknia herri eta hirietako ikuskizun eta ospakizun herriko ugariren parte da. Eta erabiltzen den bitartean, ohikoa da nazioarteko erakundeek segurutzat jotzen dituzten mugak gainditzen dituzten zarata-mailak sortzea.

Ikerketa askoren arabera, soinu-inpaktu handiko pirotekniak:

- Bizilagunengan eragozpen nabarmenak sortzen ditu, bereziki jaiegunetan eta adierazitako egunetan, eta horrek auzotarren bizikidetzari eragiten dio.
- Pertsoneri kalteak eragiten dizkie, entzumen-galerak, anputazioak eta erredurak eragiten dituzten istripuen ondorioz.
- Eragin handia du kolektibo kalteberenetan, hala nola autismoa dutenengan, haurtxoengan, adinekoengan eta entzumen-patologiak, bihotz patologia edo patologia neurologikoak dituztenengan.

- Inpaktu larriak eragiten ditu etxeko animalien eta hiriko faunarengan, eta estresa, antsietatea, ihesak eta noraeza eragiten die baita hilkortasuna zenbait kasutan ere.

Aipatutako arazoei piroteknia tradizionalari lotutako ingurumen-inpaktuak ere gehitu behar zaizkie, hala nola partikula finen, metal astunen eta gas kutsagarrien emisioa baita sortzen dituen hondakin solidoak ere. Era berean, aipatu behar da bere erabilerak sute-arrisku handia dakarrela, batez ere udan.

Gaur egun badaude aukerak, hala nola inpaktu akustiko baxuko edo nuluko piroteknia edo ikusizko edo dronak erabiliz egindako ikuskizunak, inpaktu akustiko handiko pirotekniaren ondorio kaltegarri eta negatiborik sortzen ez dituztenak eta, gainera, hainbat onura dakartzatenak, hala nola:

- Goi-mailako ikusizko esperientziak eskaintzen dituzte.
- Inklusibotasun handiagoa ahalbidetzen dute.
- Indarrean dauden araudiak betetzen direla bermatzen dute.
- Udalerrietan bizikidetzak bultzatzen dute.

Ikuskizun hauek dagoeneko erabili dira Euskadiko hainbat udalerritan (Zornotzan edo Donostian, adibidez) eta mundu osoko hainbat herritan, eta gero eta presentzia handiagoa dute herriko festetan eta jaietan, piroteknia tradizionalaren alternatiba gisa.

Esandakoagatik guztiagatik, Berdeak taldeko kideok uste dugu Legazpiko Udalak udalerrian eragin akustiko handiko pirotekniaren erabilera ezabatzea eta, horren ordez, pertsonak, animaliak eta ingurumena errespetatzen dituzten alternatibak sustatzera bideratutako politikak garatu beharko lituzkeela. Eta, horregatik, honako proposamen hauek aurkezten dizkiogu Udalbatzari:

ERABAKIAK

1. Legazpiko Udalak konpromisoa hartzen du pirotekniaren erabilera arautzeko Udal Ordenantza espezifiko bat egiteko (edo, hala badagokio, dagokion Udal Ordenantza osatzeko) konpromisoa hartzen du, arreta berezia jarriz honako atal hauei:
 - ✓ Soinu-inpaktua murrizteko irizpideak.
 - ✓ Artefaktu piroteknikoetarako ordutegiak, espazioak eta erabilera-baldintzak ezartzea.
 - ✓ Udalak antolatutako ekitaldietan, herriko eta auzoetako jaietan eta bestelako ospakizun herrikoietan inpaktu akustiko txikiko edo nuluko pirotekniaren edo ikuskizun bisualen eta dronen erabilera sustatzea.
 - ✓ Bizilagunen osasuna eta atsedena babestea.
 - ✓ Bateragarritasuna auzotarren bizikidetzaren premiekin, bereziki entzumen-sentsibilitatea duten pertsonentzat edo inklusio-premia espezifikoak dituzten kolektiboentzat.
 - ✓ Animalien ongizatea babestea eta etxe-animalientzako eta hiri-faunarentzako beldurra, izua edo arriskua saihesteko neurriak ezartzea.
 - ✓ Ingurumena babestea, gas eta partikula kutsatzaileen isurketa-bolumenari eta hondakinen sorrera-bolumenari dagokienez.
2. Legazpiko Udalak konpromisoa hartzen du bide publiko zein pribatuetan suziriak eta petardoak erabiltzeko Udaltzaingoaren kontrol-neurriak hartzeko edo areagotzeko, baita establezimenduetan salmenta kontrolatzeko ere, beharrezko baldintzak eta baimenak betetzen dituztela egiaztatzeko.

3. Legazpiko Udalak konpromisoa hartzen du udalerrian egiten diren ekitaldi eta festa ofizialetan eragin akustiko handiko soinu-piroteknia ahalik eta lasterren kentzeko, eta piroteknia tradizionala alternatiba isilekin edo inpaktu akustiko txikikoekin ordeztzeko, pertsonen, animalien eta ingurunearen osasuna eta ongizatea errespetatzen dituen ospakizun-eredu bat sustatzeko.
4. Legazpiko Udalak konpromisoa hartzen du soinu-piroteknia konbentzionalaren inpaktuei eta eskura dauden alternatibei buruz herritarrak informatzeko eta sentibilizatzeko kanpainak egiteko, auzo-elkarteekin, adinekoen elkarrekin, hezkuntza-elkarrekin, dibertsitate funtzional eta intelektuala duten kolektiboekin, elkarte ekologistekin eta animaliak babesteko elkarrekin lankidetzan.

Izp.: Alberto Bezunartea Fernández

**BEZUNARTEA
FERNANDEZ
ALBERTO -
08924671G**

Firmado digitalmente por
BEZUNARTEA FERNANDEZ
ALBERTO - 08924671G
Fecha: 2026.01.26 15:25:28
+01'00'

LEGAZPIKO BERDEAK + INDEPENDIENTES Udal Taldeko zinegotzi
bozeramailea



MOZIOA

MOCION

**GAIA: ERAGIN AKUSTIKO HANDIKO
PIROTEKNIA ARAUTZEKO MOZIOA**

**TEMA: MOCIÓN PARA LA REGULACIÓN DE
LA PIROTECNIA DE ALTO IMPACTO
ACÚSTICO**

**PROPOSATU DUENAK: LEGAZPIKO
BERDEAK UDAL TALDE POLITIKOA**

**PROPONENTE: GRUPO POLITICO
MUNICIPAL LEGAZPIKO BERDEAK**

OSOKO BILKURA: 2026/02/25

PLENO: 25/02/2026

BOZKETAREN EMAITZA:

RESULTADO DE LA VOTACION:

**- ALDE: 13 (EAJ-PNV, EH BILDU, EUSKAL
SOZIALISTAK ETA LEGAZPIKO
BERDEAK).**

**- FAVOR: 13 (EAJ-PNV. EH BILDU,
SOCIALISTAS VASCOS Y LEGAZPIKO
BERDEAK)**

- AURKA:

- CONTRA:

- ABSTENTZIOAK:

- ABSTENCION: